

2019ko bigarren hiruhilekoan esportazioen prezioak %0,5 gutxitu ziren aurrekoaren aldean

Igo egin dira Inportazioen prezioak %2,2

Eustaten datuen arabera, esportazioen prezioak %0,5 jaitsi ziren 2019ko bigarren hiruhilekoan aurrekoaren aldean. Baldin konparaketa egiten badugu iazko hiruhileko berarekin, %2,1eko gehikuntza izan da.

Inportazioen prezioak %2,2 hazi dira aurreko hiruhilekoaren aldean eta %4,0 igo dira 2018ko bigarren hiruhilekoarekin konparaturik.

Esportazioetan produktu energetikoen prezioak dira hazkunderan nabarmentzen direnak, bai aurreko hiruhilekoaren aldean bai urte artean. Halatan, 2019ko lehen hiruhilekoaren aldean esportazio energetikoak %3,8 gehitu dira; ez-energetikoen prezioak, aldiz, %0,9 gutxitu dira. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, esportazio energetikoen prezioak %6,4 gehitu ziren; ez-energetikoenak, %1,7.

Inportazioetan, produktu energetikoen prezioetan indizea %11,2 gehitu zen hiruhileko artean; ez-energetikoenean %0,7ko murrizketa gertatu da. Urte arteko tasan, produktu energetikoen prezioetan %10,9koa izan zen igoera eta %1,7koa ez-energetikoenetan.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Baloaren Indizeak, xede ekonomikoa aintzat hartuta (%). II/2019

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-0,5	2,1	2,2	4,0
Kontsumo-ondasunak	-0,9	1,8	-2,5	-3,1
Kapital-ondasunak	-0,7	1,6	-0,5	6,8
Bitarteko-ondasunak	-0,3	2,4	2,8	4,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Esportazioen **helburu ekonomikoaren** sailkapenari segituz, aurreko hiruhilekoarekiko, ondasun mota guztietan prezioek jaitsiera apala izan dute, handiagoa dena Kontsumoko Ondasunetan (-%0,9). Urte artean, aldiz, alderantzizko joera da ikusten baita ondasun mota guztietan ere, Bitarteko Ondasunetan ageriago dena (%2,4).

Inportazioei doakienez, Kontsumo Ondasunetako prezioetan jaitsierak izan dira hala hiruhileko artean (-%2,5) nola urte artean ere (-%3,1); aldiz, Bitarteko Ondasunetan kontrakoa da gertatzen, %2,8ko eta %4,4ko gehikuntzekin, hurrenez hurren. Kapital

Ondasunetan aldakuntzak zeinu ezberdinekoak dira, negatiboak hiruhileko artean (-%0,5), baina positiboak aurreko urtearekiko (%6,8).

2019ko lehenbiziko hiruhilekoaren aldean, esportazioak **nora doazen** kontuan harturik, prezioek behera egin zuten eremu geografiko guztietan: Euro eremuan (-%0,7), 28-EBn (-%0,6), ELGAn (-%0,4) eta Munduko gainerakoan (-%1,3). Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, igoerak ikusi dira prezioetan eremu geografiko ia guztietarako, nabarmenduz Munduko gainerakoan (%6,2). Euro eremuan, aldiz, %0,2ko murrizketa izan da.


Inportazioetan urte arteko igoerak ageri dira eremu guztietan, Munduko gainerakoan nabarmenduz (%4,9), eta jokaera ezberdinak hiruhileko artean, nabarmenduz berriz ere Munduko gainerakoan, %5,2ko hazkunde garbi batekin.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, ekonomikoak-eremua aintzat hartuta (%). II/2019

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	-0,5	2,1	2,2	4,0
Euro eremua	-0,7	-0,2	-2,3	0,7
EB-28	-0,6	0,1	-1,0	1,2
ELGE	-0,4	1,3	0,8	3,7
Munduko gainerakoa	-1,3	6,2	5,2	4,9

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62